



-(e)la
atzizkia:
zalantzazko
adibide
batzuk

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hain ... *-(e)la

Ondoriozko perpausetan, ez da egokia *-(e)la* menderagailua erabiltzea. Nahikoa da bi perpausak elkarren ondoan ematea komaz bereizita.

*Hain da handia, ez **dela** kutxan sartzen.

Hain da handia, ez **da** kutxan sartzen.

Ez **da** kutxan sartzen, hain da handia.

Menderagailua erabiltzekotan, *bait-* eta *-en* ditugu egokiak, **non** eta **ezen** lokailuekin batera joan daiteke.

Hain da handia, (**ezen/non**) ez **baita** kutxan sartzen.

Hain da handia, (**ezen/non**) ez **den** kutxan sartzen.

Beste molde hauek ere zuzenak dira: *hainbeste... (non/eze(n))... bait-/-(e)n*.

*Hainbeste lagun dauka, ez **dakiela** nola antolatu denei kasu egiteko.

Hainbeste lagun dauka, ez **daki** nola antolatu denei kasu egiteko.

Ez **daki** nola antolatu denei kasu egiteko, hainbeste lagun dauka.

Hainbeste lagun dauka, **non/ezen** ez **daukan** denei kasu egiteko astirik.

Hainbeste lagun dauka, **non/ezen** ez **baitauka** denei kasu egiteko astirik.

Eskerrak -(e)n

Eskerrak -(e)n eta beharrik -(e)n forma hobesten da Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak argitalpenean. Laburbilduz, zera dio:

“Eskerrak” predikatuak *-(e)n*, *-(e)la*, *-(e)nik* eta *-(e)nari* osagarriak har ditzake; aldiz, “beharrik” predikatuak *bait-* eta *-en*. Aukera guztien artean bat aukeratu behar eta *-(e)n* hobetsi da.

Eskerrak ondo egin **duen**. (? Eskerrak ondo egin **duela**.)

Beharrik garaiz etorri **den**. (? Beharrik garaiz etorri **baita**. / *Beharrik garaiz etorri **dela**.)

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, berriz, *-(e)n* zein *-(e)la* dira egoki. Hona hemen ematen dituen adibideetako batzuk:

Eskerrak ez **dela** etorri.

Eskerrak etorri ez **den**.

Beharrik, orduko, ilargiak argitzen **zituela** erreka eta bazter ikaragarri haiek.

Beharrik etorri **zaren**, bestenaz itoko nintzen.

Ez deklinatu -(e)n

Zehar galderak ezin dira deklinatu.

*Zer egingo **duenik**, ezin jakin.

Zer egingo **duen**, ezin jakin.

Hori horrela izanik, ez da egokia menderagailuari partitiboaren marka (-rik) gehitzea.

*Ez du esan gonbidatuta **gaudenik**.

Ez du esan gonbidatuta **gauden**.

Ez du esan gonbidatuta **gaudenetz**.

Ez du esan gonbidatuta **gauden ala ez**.

*-(e)nentz

-(e)n ala ez zehar-galderaren sinonimoa ez da -(e)nentz:

*Galdetu azterketa ondo egin duenentz.

*Esan etorriko zarenentz.

Euskaltzaindiak (115. araua) baztertu egin du aldaera hori, eta, horren lekuan, -(e)netz da erabili beharrekoa; ekialdeko euskalkietan erabili ohi den forma, alegia.

Galdetu azterketa ondo egin **duenetz**.

Galdetu azterketa ondo egin **duen ala ez**.

Esan etorriko **zarenetz**.

Esan etorriko **zaren ala ez**.

